

Zein dira behar dituzuen bazkide eta hornitzaile nagusiak zuen proiektuak funtziona dezan?

Bazkide nagusiak gu gara guk sortu dugulako enpresa, eta gure proiektua aurrera joan dadin egiten duguna kapitala jartzea da. Proiektua gauzatu ahal izateko, gehienez ere bi hornitzaile eduki behar dira. Izan ere, hornitzaile bakarra izateak arazoak ekar diezazkiguke enpresan, huts egin baitiezaiguke. Gure enpresan behar ditugun hornitzaile nagusiak aireko lineak, ostatua (hotelak, apartamentuak), itsas bidaien konpainiak (MSC Cruises), autoen alokairuak, txangoen hornitzaileak, operadore turistikoak eta beste asko dira.

Zergatik dira garrantzitsuak guretzako?

Gure bidaia-agentzia aurrera eraman ahal izateko, bai bazkideak bai hornitzaileak garrantzitsuak dira gure enpresarentzat. Bazkideak, esan dudan bezala, gu gara (Iraide, Izaro, Eider eta Naia) eta oso garrantzitsua da edukitzea, bazkideak ez badaude enpresak ez du funtzionatzen. Hornitzaileak dira sortu nahi diren enpresa eta negozio guztien sostengu nagusia; izan ere, bete beharreko funtzioa edozein dela ere, guztiek lortu beharko dute beren lana nola edo hala egin ahal izateko nahikoa "lehengai".

